

ANTZERKIA. Mario Gasek zuzendu du lana

Nuria Espert aktoreak Bertold Brechten poemak errezitatuko ditu

Gaur iluntzean eskainiko du azken emanaldia Getxon, Manuel Gas piano jolearekin batera

Erredakzioa | DONOSTIA

Atzo egin zuen bezala, Nuria Espert aktore kataluniarrak *Poemas y canciones* izeneko ikuskizuna eskainiko du gaur iluntzeko 20:00etan Getxo Antzokian. Gaur iluntzekoa izango da azken emanaldia. Espertek Alemaniako idazle Bertold Brechten hainbat testu eta haren gustuko musikari Kurt Weillenen konposizio interpretatuko ditu. Horretarako, Mario Gas piano jolearen laguntza izango du aktore kataluniarrak. Ikuskizuna Mario Gasek zuzenduko du.

Bertold Brecht idazlearen poemarik konprometituenak eta didaktikoenak errezitatuko ditu Nuria Espertek gaurko emanal-

dian. Hala, *Cuando los de arriba hablan de paz, Si los tiburones fueran hombres*, edota *Primero se llevaron* poema ospetsuak gaztelaniaz entzun ahal izango dira gaur iluntzean Barakaldo Antzokian. Aurrez esan bezala, poema horiei laguntzeko hainbat abesti interpretatuko ditu Mario Gas piano jolearen musikarekin batera. Eta honek Kurt Weill konpositore alemaniarren obrak eskainiko ditu.

Alemaniako kabaretaren antzera

Nuria Espert aktore kataluniarrak denetarik egin du antzezlan munduan: antzerkia egin, opera zuzendu, zineman aritu... Halaber, askotan errezitatu ditu poemak. Esaterako, Albertiren poema bilduma bat interpretatzen aritua da olerkariarekin berekin batera. Musikaren presentzia oso nabarmena izan ohi da bere emanaldietan, baita oraingo honetan ere. Joan den mendeko Alemaniako kabaretaren egiten zen antzera, gai politikoei eta sozialei buruzko poema konprometituenak interpretatuko ditu oraingoa.

LABURREAN

LITERATURA

'El millor dels mons', Qim Monzo idazle kataluniarraren azken liburua datorren astean kaleratuko da

Hurrengo astean argitaratuko du Kataluniako idazle Quim Monzonek bere haurtzaroko Bartzelonan kokaturiko ipuin bilduma: *El millor dels mons* liburua. Ipuin horietan Monzok haurra zela ezagutu zituen Bartzelonako irudiak, paisaiak eta bizimodua azaltzen ditu idazle kataluniarrak. Hala, liburuko pertsonaia askok idazlea bera islatzen dute bere bizitzaren hainbat unetan.

Pio Barojari buruzko biografia kritikoa idatzi du Eduardo Gil Bera idazle nafarrak

Pio Baroja idazlearen alderdirik ezkutuen eman du argitara Eduardo Gil Bera idazle nafarrak *Baroja o el miedo. Una biografía no autorizada* liburuan. Datorren astelehenean jarriko da salgai Barojari buruzko biografia kritiko hau. Besteak beste, Barojaren xenofobiaren edota misoginiaren berri ematen du bertan. Baita egin zituen plagi literarioak ere.


MUSIKA

Igandean hasiko dira Barakaldoko Antzokian zarzuela emanaldiak

Igandetik maiatzera bitartean zarzuela emanaldi ugari izango da Barakaldo Antzokian. Horren baitan, Franz Lehar-en *La viuda alegre* eskainiko du Lagar-Travesedo konpainiak. Halaber, Nieves Fernandez de Sevilla konpainia lirikoak bi emanaldi eskainiko ditu. Barakaldoko Orfeoia, berriz, Sorozabalen *Katuska* aurkeztuko du maiatzaren 20an.

KRITIKA MUSIKA

Joseba Martin



Mala Rodríguez kantaria, Kultama raperoarekin.

Hip hop jai egundokoa

Mala Rodríguez

Lekua: Bilboko Azkena aretoa.

Eguna: Otsailak 1. **Jende kopurua:** 350 lagun.

Iraupena: Ordubete **Salneurria:** 1.500 pta.

Izugarrizko interesa sortu zen gure artean La Mala Rodríguez ikusteko. Erdia baino gehiago jende gaztea zen, baina adineko entzuleak ere baziren. Sevillako raperoa entzun baino lehen Bilboko disko jartzaile bat izan genuen agertokian ia ordubetez. Ez zuen gauza handirik egin: bere lagunak bakarrik hasi ziren animatzen.

Eta azkenik María Rodríguez gure aurrean, txandala eta txaleko batez, talde bikain batek lagunduta: Sevillako McKx disko jartzailea —Planeta Alameda ere deitzen diote honi— eta madrildar Kultama rapero beltza —Frank T.-ren anaia eta Malaren diskoan agertzen den gonbidatu berezi bat—, animatzaile ezin hobea. Ez zuen besterik behar.

Hasteko, disko jartzaileak horrelako hip hop ekitaldiei hasiera nola eman behar zaien erakutsi zigun: bi eskuz eta bi Technics plateraz —bere orratz propioak erabili zituen sevillarrak— soinu akrobazia ugari egin zuen lehenbiziko minutuetan. Aho zabalik utzi gintuen. Eta txundituta geundela Mala eta Kultama agertu ziren. Aretoa jendez gainezka zegoen eta gero eta espazio gutxiago geratzen zen gorputza astintzeko, batez ere aurreko lerroetan. Jaia hasia zen.

María Rodríguez 23 urteko neska argala da, lotsagabea eta irribarretsua. Karisma, xarma eta mihi zorrotza dauzka, keinuetan ere maistra, baina ez da hor geratzen. Kantatzen dituen hitzak funtsezkoak dira: sexua, dirua, harremanak, au-


tosufizientzia... hip hop gai arruntak dira, baina beste modu batean garatzen ditu Sevillakoak. Eta dirudienez ongi ulertu dute jarratzaileek: kantu gehienak dakizkitez, goitik behera, batez ere ezagunenak: *Toma la traca, Yo marco el minuto, Tambalea, A jierro* edo *La cocinera*.

'Tengo un trato', bis bakarra


Ekitaldia behar den moduan luzatzeko —Mariak album bakar bat dauka— Kultama lankideak bere kantuak tartekatzen ditu —*Al ritmo de la noche* da hedatuena—. Kontzertuaren erdian ere raperoak aldagelara joan ziren disko jartzaileak bigarren emanaldi ikusgarria egin zezan. Horrelako gauzak ikusi ondoren dj izateko gogo sortzen da. Bigarren atalean, berdin: guztiok saltoka eta dantzan, *dime que sí... stiiiiiiii!, dime que no... noooo!*, jai beroa, benetan. Bis bakarra egin zuten: *Tengo un trato*, izan zen agurreko kantua, nola ez ba! baina ekitaldiak jarraitu egin zuen: Bilboko rapero batzuk agertokira igo ziren eta disko jartzailearen laguntzaz euren hitzak bota zituzten. Kable batek sortu zituen soinu arazoak kentzen baditugu, kontzertu bikaina izan genuen La Flaca, barkatu, Mala Rodríguezekin.

HONDARRIBIA

Azoka · Feria · Marché

OTSAILAK
4

AZOKAK

ARTE
&
BROKANTE
ETA BILDUMAHondarribiko Udala
Kultura Saila

HONDARRIBIKO UDALA Hondarribia